

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Osteguna, 2011ko abenduaren 29a. VIII. urtea. 2.333. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Juanfe Garces Telebista errealizadorea

«Ikusleari pentsatzen utzi behar diozu, eta horretarako musika garrantzitsua da»

Tolosarra Telemadrid katean hasi zen lanean kamera eta errealizadore laguntzaile bezala, eta gaur egun ETBrako egiten du lan, besteak beste, "Trikitraka trikitron" saioan

Dokumentaletan ere ari da lanean: 'Euskararen jatorria' izenekoan aritu da, eta oraindik estreinatu ez den Bernardo Atxaga idazleari buruzkoan ere egiten du lan **03**



Paia, Martin, Lizaso, Estiballes, Agirre eta Barrosoren bertso saioa bihar, Ibarako kiroldegian

Laugarren urtez antolatu dute 22:00etan hasiko den emanaldia; sarrerak egunean bertan 10 eurotan erosi ahal izango dira, eta aurretik ere eskuratu ahal dira 8 euro ordainduta **07**

Ekitaldi ugari antolatu dituzte euskal presoen eskubideen alde

Egin Dezagun Bidea ekimenaren barruan, elkarretaratzeak eta manifestazioak izango dira bihar, hilabeteko azken ostirala, eta etzi **04**



Bidegoiango herritarrek presoek aldeko aldarria egin dute. HITZA

Lehiaketara atera dute AHTaren Hernialde-Zizurkil zatia

Eremuak 5,8 kilometro ditu, eta ibilbidearen %87a tunela izango da, eta gainerakoa, zubibidea; lanek 169 milioiko aurrekontua dute **03**



FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK

Larrea Poligonoa 34 - 1
www.funerariavascongada.com



Gertu...

VILLABONAKO
HILETA ZERBITZUAK
BEILATOKI BULABEA

24 H..

943 694 873

Artea kalera aterako dute

Olatz Artola tolosarrak eta beste hiru ikaskidek 'From Latin, Ars' ekitaldia antolatu dute, biharko, Plaza Berrian

Imanol Garcia

Huhezki fakultatean egiten ari diren lan batek abiatuta, lau ikasleek, tartean Olatz Artola tolosarrak, *From Latin, Ars* ekitaldia antolatu dute, artea kalera ateratzeko. «Artea bere jatorria eramatea aldarrikatu nahi dugu», dio Artolak. «Artea kalean sortu zen eta hori egin nahi dugu, berriro kalera atera».

Horretarako hainbat dizipline-tako talde eta lagunak gonbidatu dituzte: Udaberri dantza taldea, Txino breakdance dantzaria, 121 Krew, ZZ Blues Band eta Aizkora Beltza musika taldeak, Ane Aldalur eta Txoan Ormazabal bertso-lariak, graffitilari eta margola-



Ekitaldiaren bultzatzaileak kartelak itsastan. I. GARCIA

riak... Hauez gain, nahi duen orori parte hartzeko deia zabaldu die ekimenaren bultzatzaileek.

Ikus-Entzunezko Komunikazioa egiten ari dira Artola eta bere ikaskideak. Dokumental bat ari dira grabatzen eta artearen gaiari eutsi zioten. «Arte eragileak elkartzea eta beraiek sortutakoa kaleratzea du helburu ekimenak», esan du Artolak. «Askatasun osoz ariko dira, ez dute gai jakin bati buruz egin beharko bere

obra». Sortuko diren lanak grabatzeaz gain, arte eragileak elkarriketatuko dituzte, gero horiek denak dokumentalean erakusteko.

Ekitaldia 16:00etatik 18:00etara izango da, Plaza Berrian. Eguraldiak utziz gero, plazan zehar egin nahi dituzte sorkuntza lanak. Zerbait taberna eta dendan laguntza izan dute ekitaldia prestatzeko, baina beren poltsikotik ere dirua jarri behar izan dute.

Haur langileen egoera salatzen duen obra

'Poxpolo saltzaile txikia' ipuinean oinarritutako 'Pequeños deseos' txotxongilo lana taularatuko dute, bihar

I. Garcia

Andersen *Poxpolo saltzaile txikia* ipuinean bertsioa eskainiko du Teatro Plus asturiar antzerki taldeak bihar, Topik zentroan, 18:30ean. *Pequeños deseos* du izena eta munduan zehar hainbeste haurrekin gertatzen ari dena salatu nahi du. Adin guztiarentzako antzezlan da. Haurrek 4 euro ordaindu behar dute eta helduek 7 euro.

Neska behartsu baten istorioa kontatzen du ipuinak, abenduaren 31n, hotz izugarria egiten due-



Ikuskizunaren une bat. HITZA

la, poxpoloak saltzen dituenak. «Pobreziak hainbat eta hainbat haur behartzen ditu munduan zehar lana egitera», diote antzezlanaren egileek, Andersenek orain 165 urte obra idatzi zuen bezalaxe. «Daukaten eskubide bakarra kentzen zaie, haurrak izateko eskubidea».

Hodeiertzen eta bere elkarteko abesbatzen Gabon kontzertua, gaur

I. Garcia

Aurten ere Hodeiertz abesbatzak, Hodei Truk Hirukide eta Hodei Truk haur abesbatzekin eta Hodei gazte abesbatzarekin batera, bere ohiko Gabon kontzertua egingo du. Emanaldia gaur izango da, Santa Klara komentuan, 20:15ean.

Oraingo honetan, zuzendari berriaren eskuetan izango da Hodeiertz abesbatza. Izan ere, Jorge Apodaca Aisa zuzendari aragoarrak hartu baitu abesbatzaren zuzendaritza. Zuzendari gazte honek ibilbide luzea du musika arloan, nabarmena izanik Zaragozako Enchiriadis ahots zurien abesbatzaren gidaritza.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Zakurrak.** Setter arrazako bi zakur eme galdu ziren pasa den Eguberri egunean, Hernialdeko Prailleburu inguruan. Bata zuri-gorria da eta txipa dauka eta bestea zuri-belta da. Norbait ikusi baditu edo zerbaitek badaki, deitu dezala mesedez 943 654657 edo 617 113302 telefono zenbakira.

Gutunak

Urkizuko zenbait kontu

Urkizura igotzeko hiru bide daude: San Frantziskotik Montezkura eta hortik gora joanda; Torre baseritik Lizardiren monumentura, eta ondoren Zipirinoko eliza zaharretik jarraituta; eta Bentaunditik igota, Gurutzegako tontorretik igaro ondoren. Orain urte batzuk bertatik ezin zen pasa, baserriarrek ganadua jartzeko txarrantxarekin itxita baitzeuden. 20 urte pasatu ditugu horiek garbitzen eta egun edozeinentzako erabiltzeko moduan daude, bai oinez, bizikletaz edo zaldiz. Zerbaitzuk, Malaka baserrikoek, Ramon Muñagorrik eta Dabid Iraolak oso ondo jarri dituzte zenbait langa, eta horregatik saria merezi dute.

Urkizuko gaina 500 metro-tara dago. Ikuspegi zoragarriak ditu: Txindoki, Nafarroako mendiak, parke eolikoak, Jaizkibel... ikusten dira. Gurutzegako baserriko tontorretik ere ikuspegi zoragarriak ditu.

Baina badaude zenbait gauzaker dabilzanak. Urkizutik atera eta Eguzkitza aldera hartuta, Udetatik iturriraino iristen da. 1963an 'Txaparro'k jarri zuen iturria. Sasiak hartuta zegoen. Garbitu, ura etortzen dela jarri eta seinale bat jarri genuen. Hurrengo joateko lokatz zulo bat zegoen bidean. Bidearen ondoko sasiak kendu eta jendea pasatzeko moduan jarri genuen, seinaleak ere jarri. Norbait hori dena puskatu eta itxi egin du. Auzo alkateari galdetu nion kezarik izan ote zuen horren inguruan, eta ezetz esan zidan. Puskatu duenak gizatasun gutxi erakutsi du.

Bestalde, 800 metro-tara dagoen Urkizuko errepikagailuaren ondotik pasatzen da Tolosatik Herniora joateko bidea. Hormigoizko pista errepetidorean bukatzen da. Kamioiak

karga handiarekin ibili dira eta pistatik gorako bidea dena hondatuta utzi dute. Ez dakit nori dagokion, udalari edo Foru Aldundiari, bide hori konpontzea, baina oraindik ez da ezer egin.

Beste gai bat eskola zahararen eraikina da. Orain 40-45 urte inguru eraikin berria egin zen frontoiaren ondoan, eta gero, Foru Aldundiak orain 30 urte inguru bota egin zuen, esan ez eskola zaharreko eraikina auzoarentzat izango zela. Apaiz batek, baina, orain urte batzuk Gotzaitegiaren izenean jarri zuen, eta orain giltzapean dago, inor ezin dela sartu. Gustatuko litzaidake jakitea zein izan ziren apaiz horren laguntzaileak erakin hori auzoari lapurtzeko.

Antton Bandresen oroimenez

Antton ezkonberrian Urkizu aldera etorri zen bizitzera. Horretarako, nola ez, etxe bat behar zuenez, etxe berri bat egin zuen. Hau guztia orain dela hogeita-mairu urte izan zen.

Jakina den bezala, Antton oso gizon irekia zen giza harremanetan, eta berehala izan zituen inguruko gehienekin harreman adiskidetsuak. Beraz, oso ezaguna zen eta estimatua gehienentzat.

Hil baino egun batzuk lehenago, Antton eta biok, 28 Kanalarekin joan ginen Elur zulo deritzan ingurura, nola zegoen ikus-terera. Antzina, zulo hauek, elurra urtu gabe mantentzeko funtzioa zuten, ospitaletan sendabide erabiltzeko, eta abar.

Bere asmoa inguru hura txukuntzea zen, jendeak ikusi eta ezagutu zezan. Garai bateko ohiturak erakusteko asmoak hor gelditu dira oraingoz. Noiz helduko ote zaio berriz ekintza honi, behar den bezala burutzeko?

■ **Agustin Iraola.**

→ Laburrak

Petti bakarlararen saioa gaur, Orbela tabernan

KULTURA › Orbela tabernan, hilabeteroko azken ostegunetan kultur emanaldiak antolatzen ari dira, *Orbelako gauak* izenburupean. Bakarriketak, musika, txiste kontalariak, antzerkia, txotxongiloak... izango dira ikusgai eta entzungai saio horietan. Gaur musikaren txanda izango da. *Euskal Bakarlariak* atalean, Petti abeslari nafarrak emango du kontzertua. Emanaldia 22:30ean hasiko da.

Bi erakusketa ikusgai Aranburu jauregian

GIZARTEA › Tolosako Aranburu jauregian bi erakusketa daude ikusgai egunotan. *Esna-bidean* erakusketa urtarrilaren 14a arte izango da zabalik. *Baseritik Zerkausira* izenekoa, berriz, urtarrilaren 21a arte bisitatu ahaliko da.

Mus txapelketa gaur gauetan Bonberenean

GIZARTEA › 14. urtemugaren ospakizun ekitaldien barruan, Bonberenean lehenengo aldiz mus txapelketa antolatu du. Gaur izango da, 22:00etatik 01:00etara.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Juanfe Garces ◉ **Telebista errealizadorea**

Telebistan era askotako programak egin ondoren, 'Euskararen jatorria' dokumentalean errealizadore gisa aritu da Madrilen ikasi zuen tolosarra; Bernardo Atxagari buruz ere egin du beste lan bat.



HITZA

«Dokumentalak egiten jarraitzeko irrikaz nago»

Joxemi Saizar Tolosa

Juanfe Garces (Tolosa, 1972) errealizadore bezala ari da lanean azken urteotan ETBrako, nahiz eta beste hainbat saltsatan ere badabilen. Madrilen egin zituen ikasketak eta kamera eta errealizadore laguntzaile gisa hasi zen Telemadrid telebista katean.

Zure aita kamera batekin ezagutu genuen Inauterietan. Hortik al datorkizu zaletasuna?

Agian bai. Zaletasun handia zuen eta txikitari askotan hartzen gintuen bere *super 8* kamerarekin etxean edo mendi irteeretan. Artisau eran muntatzen zituen pelikulak. Lehen praktikak bere kamerarekin egin nituen, noski. Laskorain ikastolan batxilerrik ikasketak bukatu eta ez nuen garbi zer egin. Lagun baten bidez proba bezala hasi nintzen mundu honetan Madrilera joanda 19 urterekin. Gazte zarenean ez dakizu zertan egingo duzun lan.

Zein izan ziren zure ikasketak?

Komunikazio eta informazio munduko arlo guztiak ikasi nituen: kamera, errealizadore, zuzendari... gai bakoitzean espezializatutako irakasleekin. Baina gehiena praktikan ikasi dut. Berehala hasi nintzen Telemadrid katean praktiketan eta hiruzpatalu urtetan ikasketak eta praktikak batera egin nituen.

Nola sartu zinen lan munduan?

Astebeteko praktikekin hasi, luzatu bi edo hiru hilabetera eta horrela, pixkanaka. Lehen programa jende helduak lehen mailako ikasketak titulua ateratzeko zen.

Zein lan mota egin zenuen han?

Hamalau bat urtetan era askotako programak egin nituen: lehen aipatutakoa, testigantzak, elkarrizketak, informatiboak, erretransmisioak, barietateak, musika, kultura, homosexualentzako programa, sukaldaritza... Telemadrid katean kamera bezala hasi eta gero errealizadore laguntzaile bezala aritu nintzen. Oso giro ona genuen gure artean. Film labor batzuk ere egin genituen, TVEn bota eta saritu zituztenak. Sei bat urte horrela egin ondoren Telemadrid katearekin harremana zuten kanal tematikotarako aritu nintzen Multipark produktorekin: Canal Ella, Cosmopolitan, Canal Cocina... Formatu txikiagoan, baina errealizadore

gisa jada, ardurua handiagoarekin aritu nintzen.

Zertan datza desberdintasuna?

Alde teknikoaren arduradun nagusia zara. Edukiak zuzendaria arduratzen da. Adibidez, Cibeles pasarella emateko 6 kamera dauka, zuzendakoa bada enlazea behar da, unidate mugikorra, errealizazio kamioia, kamera bakoitzaren planoak pentsatu behar dira, zuzen esandako kamera pintzatzen duena dago, audioa ematen duena, kamerak kontrolatzen dituen, kontrol remotoa, teknikariak, kableak botatzen dituztenak; antzoki barruan atreztoa dago, makilajea, jantziteria... Ekipo handia da eta dena koordinatu behar da.

Zein izan da muntaiarik handiena?

Telemadrid kateko zuzeneko barietate programa bat: 8-9 kamera, guarekin, elkarrizketak zeuden, musika aktuzioak, esketxak grabatu, publikoa dago, plato han-

«Musikak ematen dio gorputza dokumentalari, edizio estilo berezia da»

«Argitatzailak egiten duena magikoa da, nahi duzun giroa ematen diolako»

dia... Hori izan zen zailenetakoa teknikoki. Programa bakoitzak bere mekanika dauka.

Eta nola sortu zitzaizun Euskal Herriari itzultzeko aukera?

ETBra etortzea eskaini zidan Bobacoca produktorak, serie asko egiten dituen produktora indartsua. Madrilen oso gustura nengoen, lagunekin eta lanarekin, baina itzultzeko gogoa nuen. Elkarrizketetan zuzendari lana zela esan zidaten. Ez zen nik ikasitakoa eta nik nekiena, eta hala adierazi nien. Formatua ikusteko esan zidaten. BBCtik erositako lehiaketa bat zen, formatu erraza. Ez nuen argi ikusten. Lagunekin kontsultatu nuen eta probatzeko esan zidaten. Produktorearen laguntza handia izan nuen, baina programak ez zuen asko iraun. Aldi berean, Lasarteko Digitalak produktorearekin harremanetan jarri nintzen eta zazpi urte daromatzat hor.

Zein lan egin duzu ETBn?

Denetik. Oso ondo etorri zait Madrilgo esperientzia. Txirri, Mirri eta Txiribitoen pailazoen *Trikitra-ka trikitron* programan nago adibidez, errealizadore bezala. Beste batzuetan zuzendariaren edo editorearen lana ere hartu dut, muntaia egiten duena. Digitalak-en oso gustura nago, oso lan desberdinak egiten ditudalako. Azken lanak dokumentalak izan dira, baina aurretik iragarki asko, bideo klase asko... Jendea ezagutzeko aukera ematen dizu eta hori zoragarria da, oso aberasgarria.

Eta zein dokumental egin duzu?

Orain dela hiru urte *Sukalde maisuak* izeneko bost dokumental egin nituen telebistarako, errealizadore gisa: Aduriz, Arzak, Arbelaitz, Subijana eta Berasategi. Bere garaian TVEk erosi eta bota zituen. Asko gustatu zen produktua izan zen. Atzerrian ere saldu da. Sukaldaritzarekin lotuta, Internetera zuzendutako bideo batzuk ere egin genituen Repsol gidarako. Sei hilabeteko lana izan zen. Beraiekin jan, dena azaldu... Aukera hori nork dauka? Asko baloratzen dut hori. Pribilegiatua sentitzen naiz. Unai Basurkoren dokumentalean ere kolaboratu dut, munduari buelta belautzian agertzen duena.

Bernardo Atxagari buruzko dokumentala egin omen duzu.

Bai, oraindik estreinatu gabea. Pertsonalki oso aberasgarria izan da. ETBtik etorri da proposamena. Berarekin hitz egiten hasi Zaldudondoko bere etxean eta konturatu nintzen asko betetzen zuela: hizkera oso ona, etorria, memoria handia, denak dauka bere ipuina, istorioa... Oso sentsiblea da. Lan pertsonala eta polita izan da.

Beti gauza berriak asmatzen egon behar duzu.

Birziklatu behar zara etengabe, batez ere, arlo teknikoan. Dena dakien megarrealizadore sentitzen bazara ezin duzu aurrera egin, gauzak aldatzen ari direlako etengabe. Adibidez, Bernardo Atxagaren kasuan argazki kamera erabili dut, eta horrek beste aukera batzuk ematen dizkizu; beste irudi bat du, askoz zinematografikoagoa, eta segurtasun handiagoa ematen du. Gustatu behar zaitu eta kezka izan. Internet forrejarri nintzen eta zazpi urte daromatzat hor.

dakizula uste baduzu galduta zaude.

'Euskararen jatorria' dokumentalera nola sortu zen aukera?

Hasier Etxeberria zuzendaria *Sukalde maisuak* dokumentaletan ezagutu nuen. Duela 14 urte zuen proiektua idatzia eta orain sortu da egiteko aukera. Zuzendaria produktorearekin harremanetan jarri zen eta produktora nirekin. Lan interesgarria izan da.

Nola izan da grabazioa?

15 elkarrizketa dira, batzuk, alde zientifikotik eta beste batzuk, esoterikotik. Adituek hala deitzen diete, baina niri ez zait gustatzen, errespetua merezi dutela iruditzen zait. Zailtasuna produkzio aldetik izan da, bidaia asko egin behar izan ditugulako euskarari buruzko adituekin egoteko: Hawai, Massachusetts, Paris, Marsella, Kantabria, Madril... Formatu aldetik eta errealizazio aldetik, gai honi irudia jartzea zaila da, zerbait poetikoagoa egin behar duzu. Nik egin nituen audio eta argitazpen lanak.

Nolako irudiak bilatu dituzu?

Elkarrizketatuez gain, egon garen tokietako irudiak, toponimia agertzen den lekuak, aurpegiak... Irudi horietan argitatzailak egiten duena magikoa da, nahi duzun giroa ematen diolako. Eta gero, edizio lanetan, musikari garrrantz handia ematen diot.

Zergatik?

Ikusleari pentsatzen utzi behar diozu, ikusten ari denaz konturatzeko. Eta horretarako musikak izugarriko garrantzia dauka. Obesioa daukat. Anaia musikariren [Txema] eragina izango dut agian. Balenziaga museoarentzat egin ditudan dokumentalak irudia eta musika dute bakarrik. Klimatean sartzeko zaitu musikak. Doinu asko entzuten ditut aukeratzeko. Hori ere nire lana da. Horrek ematen dio gorputza dokumentalari, edizio estilo berezia. Momentuan agian ez zara konturatzeko zer ari den entzuten, baina garrantzitsua da.

Zertan zabilta gustuen?

Dokumentalak egiten. Kultur programak egiten ere oso erosi ibili nintzen Madrilen. Pailazoen programan ere gustura ari naiz.

Tolosan zer bait egiteko asmorik baal duzu?

Inauterietan buruzko dokumentala egitea gustatuko litzaidake aitarren materiala aprobetxatuz. Aita hil zenean bururatu zitzaizkan egitea, berari eskaintzeko, baina ez dakit noiz izango duan horretarako aukera.

Aurrera begira zer duzu?

Getariako Balenziaga museoarentzat bideo batzuk egiten ari naiz. Hurrengo urterako proiektu berriak ere badaude produktorak, baina ez dago ezer finkorik oraindik. Dokumentalak egiten jarraitzeko irrikitan nago.

Urtarrilaren 7ko manifestazioaren inguruan etorri da azken ostirala

Egin Dezagun Bidea ekimenak Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko ekitaldiak antolatu ditu

Asier Imaz

Hileko eta urteko azken ostiralean, Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri gehienetan, euskal preso eta iheslarien aldeko elkarretaratzeak egingo dituzte. Bestalde, Egin Dezagun Bidea herri ekimenak autobusak antolatu ditu Bilbon urtarrilaren 7an egingo den manifestaziorako. Izena emateko aukera ohiko lekuetan jarri dutela azaldu dute.

Herriz herri

Gabon egunen inguruan, Bilboko manifestazioa ardatz hartuta edo preso eta iheslarien eskubideen alde, azken ostiralaz gain beste hainbat ekitaldi antolatu dituzte eskualdean.

Adunatik azaldu dutenez, «jadanik herritar askok» eman diote Euskal Preso Politikoen Eskubideen Aldeko Manifestuari atxikimendua, eta herritar guztiak Bilbora gonbidatu dituzte.

Altzon, urtero bezala, hilaren 31n, 20:00etan, elkarretaratzea egingo dute preso eta iheslarien alde. Bestalde, hainbat herritarrek argazkia atera dute manifestaziora joateko eskatuz.

Alegian, herriko hamalau eragilek Preso Politikoen Eskubideen Aldeko Manifestua sinatu dutela jakinarazi dute Egin Dezagun Bidean ekimenetik. Horrez gain, Bilbora joateko autobusa atera dute. Izena emateko aukera Ikxian, Kurpilen, Jubilatuenen, Hilarioenen eta Etxeberriaren jarri dute. Azkenik, urteko azken egunean, hilaren 31n, plazatik abiatuta manifestazioa egingo dute.

Amezketan, urteko azken egunean elkarretaratzea egingo dute plazan, 19:30ean. Urtarrilaren 7ari begira, autobusa bete nahi dute amezketarrek. Langileek 5 euro ordaindu beharko dituzte, eta ikasle nahiz langabetuek doan eman dezakete izena. Autobusa 14:30ean irtengo da Abaltzizketako bigegurutzetik.

Anoetako Egin Dezagun Bidea ekimenak Gabonetako egitarauarekin aurrera jarraitzen du. Bihar, 18:00etatik aurrera gaztain jatea egingo da plazan, 19:30ak bitarte. Tarte horretan presoan al-

↓ Azken ostirala

BIHAR, ABENDUAK 30

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Anoeta.** 19:30ean.
- **Asteasu.** 20:00etan.
- **Ibarra.** 19:30ean.
- **Irura.** 19:30ean, plazan.
- **Gaztelu.** 20:30ean, plazan.
- **Ikaztegieta.** 20:30ean.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Orendain.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30ean.
- **Villabona.** 20:00etan.
- **Zizurkil.** 20:00etan.
- **Leaburu.** 20:15ean.
- **Leitza.** 20:00etan.

deko materiala egingo da salgai. 22:00etan, aldiz, gazte asanbladaren laguntzarekin, *Ispilua* antzezlanaren egingo da Gaztetxean. Hilaren 31n, 18:00etan materiala saltzen egingo dira berriro, eta elkarretaratzea ere egingo dute. Manifestaziora joateko zerrenda, azkenik, Itzulini jarri dute.

Berastegi, Berrobi eta Elduaingo herritarrek Bilbora joateko autobusa antolatu dute. Izena emateko aukera bihar amaituko da, eta Urepele Elkartean, udaletxeetan edo hautetsirenen bati esanda egin daiteke. Haur eta ikasleek doan izango dute bidaia, eta helduak 8 eurotan.

Bidegoianen, Bilduko kideek herritarrek animatu nahi dituzte Bilbora joateko, eta hara joateko antolatu duten autobusean izena eman dezatela eskatu diete.

Azkenik, Ibarra eta Villabona-Zizurkil, hilaren 31n manifestazioa egingo dute 19:00etan.



Alegia, Aduna eta Altzoko herritarrek, eurekin konta daitekeela erakutsi dute Bilbon urtarrilaren 7an egingo den manifestaziorako. HITZA



harpidedun izateak badu saria

zozketa

1 Mahala sorta

Bi sorta

Mahala Berri baserria
Leaburu
Tel.: 943-67 07 24



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

2 Gorrotxategi sorta

Hiru turroiko bost sorta

Plaza Zaharra, 7 • Tolosa
Tel.: 943-67 07 27 / 943-65 12 26
www.gorrotxategi.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

3 Tolosako babarrunak

Hamar babarrun poltsa Eusko labelarekin

San Esteban, 29 • Tolosa
Tel.: 943-65 02 53



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

4 Laskorain Ikastolako Abesbatzaren CD-DVDA

Hamar ale

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 54



5 Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean

Bi liburu

HITZako bulegoa
Araba etorbidea, 5 behea
Tel.: 943 65 56 95

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 55



6 Lagu Aro GBC

Sarrera pareta

Urtarrilak 4 • Asteazkena
20:00etan
Donostiako Iulben

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 56



LAGUN ARO GBC
Cajasol Banca Civica
saskibaloia partida

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan, Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

Abenduaren 24an Olentzeroez betetzen da herria. Etxeetako atariak eta balkoiak pertsonaia irudikatzen duten panpinekin apaintzen dituzte; aspaldiko usadioa da Leitzan, eta herritar ugari hartu ohi du parte.

Orantzaroaren erakusketa itzela

Iñigo Terradillos Leitza

Eguberrietan gaudela era-kusten duten hainbat ezaugarri topa ditzakegure inguruan eguntan. Kaleetako bozgorailuetatik Gabonetako musika entzuten dugula izan daiteke horietako bat, eta beste bat apaingarriak. Herriko kaleak eta geure etxeetako barrualde nahiz kanpoaldeak argiez, pinuez, Olentzeroz eta beste-lako pertsonaiez apaintzen ditugu. Bada apainketen alorrean bereziki nabarmentzen den herririk. Leitzan Olentzero edo Orantzaroarekin apainduta ikus ditzakegu urtero etxe ugari, bertako usadioari eutsiz. Pertsonaia-ren aldaera guztiak baimentzen dira, gainera.

Ohitura edo tradizio zaharra da Orantzaroarena, «betikoa». Le-kukotzei men eginez, 100 urte bai-no zaharragokoa bada tradizioa. Alke kultur elkartetik diotenez, «usadioa berreskuratzen eta lan-tzen ari gara, altxor handia baita guretzat». Kutsu «misteriotsua» duen ospakizun honek, gainera, herri guziaz hartzen du, herrigunetik hasi eta baserri-auzoetara. Bada, abenduaren 24ko ohitura da Orantzaroaren panpina etxe-ko balkoian, leihoan edo ganbarako sabaian jartzea, afari berezia egitea, sua piztea; Orantzaro pan-pinari begigorri esan eta kanta abestea, eta ipuin beldurgarri eta harrigarriak kontatzea etxeko txikienei.


Tradizioa berreskuratzeko hel-buruz, aurtien ere, kalejira egin zuten herrian barrena, haurrek eta gurasoek euren Orantzaroak eramanez. Otordu berezia egin etxean, eta ondoren magia-z bete-riko gaua izan zuten, sua protagonista izan zelarik.

Orantzaroaren aldaerak



Eguna argitzerako Orantzaro-z betetzen da herria, eta hurrengo egunerako desagertzen da. Pan-pinak, baina, badu berezitasunik. Beste herrietan ez bezala, Olen-tzero ikazkinaren ohiko irudia bilakaturik agertzen da Leitzan. Gi-zonezkoa nahiz emakumezkoa izan daiteke, eta ikazkinaz gain beste lanbideren bat ere irudika lezake. Norbere irudimenaren arabera da. Asko dira usadio edo ekimenarekin bat egiten duten leitzarrek. Parte hartzaileen artean, gainera, saski bat zozke-tatzen dute.

Olentzeroen erakusketa berezi hau egun batera mugatzea da pena, bisitatzeak merezi baitu.

o leitzaldea@hitza.info



Ohiko Olentzeroren pertsonaia irudikatuz eginiko panpinak. ALKE



Olentzerok nahi adina aldaera izan ditzake Leitzan, norbere irudimenaren arabera. ALKE



ARLAR KIROAK
LASKORAIN KALEA
7-9-10-14
TEL.: 943 654916
FAXA: 943 651727
20400 TOLOSA





Tolosa-Hernialde zatiko obrak aurrera doaz; irudian, zati horretako tunel baten irteera, Tolosatik Hernialderako bidetik ikusita. E. MAIZ

Hernialde eta Zizurkil arteko zatia 169 milioietan eskaini dute

Abiadura Handiko Trenaren obran erabakita daudenetik Gipuzkoako azken zatia lehiaketara atera du Eusko Jaurlaritzak

Zatirik handiena da: 5,870 metro luze ditu; %86,5a tunela da, eta gainerakoa zubibidea

Eneritz Maiz

Abiadura Handiko Trenaren lanetako Hernialde eta Zizurkil arteko zatiaren eskaintza egin du Eusko Jaurlaritzak. Lehiaketara atera den Gipuzkoako zatirik handiena da, eta 169 milioi euroko aurrekontua izango du; kilometro bakoitzeko 29 milioi euro pasatxo, hain zuzen ere.

Gipuzkoako zatian erabakita dauden lanen azken zatia eskaini du Jaurlaritzak. Hernialde-Zizurkil zatiak 5,8 kilometro ditu. Ibilbidearen %86,5a tunela izango da, eta gainerakoa, zubibide bidez egingo dute. Lan hauek 42 hilabete iraupena izango dute, beraz, hiru urte eta erdi beharko dituzte obra guztiak bukatzeko.

Eskaini duten zatia, Hernialde,

Anoeta, Alkiza, Asteasu eta Zizurkil herrietatik pasako da. Zatiarik handiena, Anoeta, Asteasu eta Zizurkilgo lur azpietatik igaroko da. Gainerako ibilbideak hiru zubibide izango ditu: Hernialde, Alkiza eta Asteasuko erretetatik pasako da. 25 metro, 69 metro eta 404 metro izango dituzte, hurrenez hurren.

AHTaren lanak direla eta, GI-3412 eta GI-3630 errepideak kaltetuak izango dira. Anoeta eta Asteasuko tunelaren sartu-irteerak egin behar dituztenez, errepidean saihezbideak egingo dituzte. Saihezbideen bidez, ibilgailuen zirkulazioan, «ez dela arazorik izango» adierazi dute Eusko Jaurlaritzatik. Eta errepideak «hasierako egoerara azkar egokitzen»

saiatuko direla azpimarratu dute.

Hernialde-Zizurkil zatiarekin, AHTaren Gipuzkoako zatiari dagozkion erabakitako zati guztiak emanda daude. Hernianitik Irune-rako bidea, eta Donostia eta Irun-go geltokietarako sarrerak falta dira, eta hauek, erabat zehaztu gabe daude, oraindik.

Hamahiru zati martxan

Eusko Jaurlaritzak jakitera eman duenez, 13 zati martxan jarriak daude dagoeneko, eta obrak, «martxa onean doaz».

Bergara-Bergara, Bergara-Antzuola, Antzuola-Ezkio Itsaso mendebaldea, Antzuola-Ezkio Itsaso ekialdea, Ezkio-Beasain, Beasain mendebaldea, Beasain ekialdea, Ordizia-Itsasondo, Le-

gorreta, Tolosa, Tolosa-Hernialde, Andoain-Urnieta eta Urnieta-Hernani.

Lanean ari diren zati hauei, orain gutxi eskaini dituzten Hernani-Astigarraga eta Ezkio Itsaso gehitu behar zaizkie. Eta azpimarratu dutenez, epe oso laburrean, Zizurkil eta Andoain arteko zatia ere esleituko dute.

Zehazki, eta urtea bukatzera-

Hernialde, Alkiza eta Asteasu, 25, 69 eta 404 metroko zubibideak egingo dira

GI-3412 eta GI-3630 errepideak kaltetuko dituzte AHTaren obrak egiterakoan

ko, Euskal Y proiektuak Gipuzkoan izango dituen 53,4 kilometro jarriko dituzte martxan, hau da, obra guztiaren %69,6a. 2016. urterako Gipuzkoako hiriburura tren iristea da beraien helburua. Bestetik, 2012ko lehen hiruhilekorako Ordizia-Itsasondo eta Beasain ekialdea zatien obra zibilen gauzatzea bukatuta egotea aurreikusten dute.

Orain bi urtetik lanean

2010. urte hasierarako hasi zituzten lehen obrak Tolosaldean, eta ez dute etenik izan. Tolosako Aldaba auzoko Ugane auzoan hasi zituzten lehen obra horiek. Gaur egun, lanak aurreratuta dituzte, tunelak eta zubiak eginez. Horien ondoren, Tolosa eta Tolosa-Hernialde zatiko lanak hasi zituzten. Obra hauek, leherketen fasean daude orain, hau da, tunelak eginen hasiak dira.

2011. urteak hildako bat eta beste zauritu bat utzi ditu obran izan diren bi istripuetan. Biak Tolosako zatian gertatu ziren, horietako bat Aldaba Txiki auzoan eta bestea, Olarrain auzoan.

• tolosaldean@hitza.info

Eibarren aurkako partida, etzi

Intxurrek Bigarren B mailako Eibar taldearen aurkako partida du herriko Elorri futbol zelaian, 11:00etan

E. Maiz Alegia

Alegiako Intxurre futbol taldeko jokalariek Bigarren B mailako Eibar futbol taldearen aurka jokatuko dute partida. Etzi, hilak 31, Urte Zahar egunean izango da, Alegiako Elorri futbol zelaian.

Eibartarrak Alegiara etorriko dira, eta 11:00etan emango zaio hasiera futbol partidari. Gabon

egun hauetako atseden egunak aprobetxatuko dituzte lagunarteko partida jokatuzko.

Entrenatzaileak, adiskide

Manix Mandiola Eibarko entrenatzailea eta Santos Irazustabarrena Intxurrekoa adiskideak di-

rela eta, antolatuko dute lagunarteko partida. Hiru urte pasa dituzte partida hau Alegian jokatuta nahian. Eibarko Ipuruan jokatutako dira, baina azkenean aurten etorriko dira Eibarko jokalariek Alegiako futbol zelaian jokatuzera. • alegaldea@hitza.info



Alegiako Intxurreko jokalariek Eibarko futbolariarekin. HITZA

Janari eta material bilketa, Sahararako

Tolosaldea Sahararekin elkartarekin bat egin du Amezketako Udalak; materiala urtarrilaren 31 bitartean bilduko da

E. Maiz Amezketara

Tolosaldea Sahararekin elkartarako Sahara herriarekiko elkartasuna lortzea du helburu, eta Amezketako Udalak bat egin du kanpainarekin. Materiala, udaltxearen sarreran utzi beharko da plastikozko poltsetan: arroza, le-

kaleak, hegalaueza eta sardinak oliotan, pasta, olioak, azukreak, konpresak, pixohialak,...

Eskola bat eraikitzen ari dira, eta bertan 44 ikasle daude oraingoz; 120 ikaslerentzat izango du lekua. Dirua biltzeaz gain, eskola materiala ere behar-beharrezkoa dute. Beraz, janariarekin batera eskola materiala ere bilduko da. Janari eta eskola materialaren bilketak urtarrilaren 31ra arte iraungo du.

Diruz lagundu nahi duenak, Kutxako 2101 0067 22 0011180866 edo La Caixako 2100 1758 68 0200077750 kontuetan sar dezake.

Bertso saioa antolatu du biharko Subegi elkarteak, Belabieta kiroldegian

Xabi Paia, Alaia Martin, Xebastian Lizaso, Arkaitz Estiballes, Amaia Agirre eta Odei Barroso ariko dira

Iñigo Terradillos Ibarra

Ohiko bilakatzen ari da Ibarra urtea bertsoa amaitzea. Izan ere, azken hiru urteetan, bertso saioaz gozatzeko parada izan da, eta aurtengoan ere aukera bera izango da, Subegi elkartearen eskutik. Bertso saioa bihar izango da, 22:00etan hasita, Ibarra Belabieta kiroldegian.

Ibarra Udalak, Ibarra Gazte Asanbladak eta Xepelarr dokumentazio zentroak lagundu eta **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA** egunkariak babesturiko emanaldian punta-puntako bertsolariak ariko dira. Xabi Paia, Alaia Martin, Xebastian Lizaso, Arkaitz Estiballes, Amaia Agirre eta Odei Barroso izango dira tau-



Subegik antolatutako lehen bertso saioa irudia. BARTOLA FESTA BATZORDEA

la gainera igoko diren bertsolariak. Bertso saioa are eta atsegina egite aldera, gainera, berogailu sistema jarriko dute kiroldegian.

Bestalde, sarrerei dagokienez, bihar gauean emanaldiaren aurretik kiroldegian eskuratu ahaliko dira 10 euroren trukean. Au-

rrez ere eros daitezke, 8 euroan, ondorengo lekuetan: Ibarra Subegi, Zubiaurre, Atari, Danon Txokoa eta Lurdes liburudenda; Tolosako Denak eta Rakun; Anotako Itzulin; Villabonako Iratzarren; Leitzako Torrean; Alegiko Ixkiñan; eta Beasaingo Arrano tabernan.

4.200 euro bildu dituzte elkartasun merkatuan

5.500 euro jaso ditu Eguberrietan Ibaratik Misio Taldeak hainbat herrialdetan dituen proiektuetarako

I. Terradillos Ibarra

Ibaratik Misio Taldeak antolatuta, hilaren 17tik 23ra Elkartasun Merkatua egon da zabalik Ibarra parrokiko lokaletan. Bada, el-

kartetik adierazi dutenez, 4.235 euro bildu ahal izan dituzte bertan egun horietan saldu dutenarekin.

Bestalde, Misio Taldeko kideak, aurreko urteetan bezala, parrokiko koruarekin batera atera ziren abestera hilaren 24an. 1.265 euro jaso zituzten Ibarra kaleetan.

Beraz, 5.500 euro batu dituzte denera, Ekuador, Honduras, eta Indian dituzten proiektuetara bideratzeko.



Misio taldea Parrokiko koruarekin batera, hilaren 24ean, kantuan. HITZA

Alkizan ere San Silbestre krosa egingo dute etzi eguerdian

Egunean bertan eman ahaliko da izena; parte hartzaile guztientzat sariak banatuko dituzte antolatzailleek

Erredakzioa Alkiza

Beste hainbat herritan bezala, urtea lasterka amaituko dute herritar askok Alkizan. Izan ere gazte txoei zuzenduriko San Silbestre krosa egingo dute etzi, larunbatean.

Antolatzailleek azaldu dutenaren arabera, 12 urtera bitarteko gazteek parte hartu ahaliko dute lasterketan. 12:00etan hasiko da, eta parte hartu nahi dutenek krosa hasi baino lehen herriko plaza gerturatu besterik ez dute egin behar.

Saria ere izango dute lasterkariak, eta ez irabazleentzat soilik. Parte hartzaile guztiak sariren batekin itzuliko dira euren etxetara.

o anoetza@hitza.info

Gaztetxeak eta Subegi elkarteak hainbat ekitaldi antolatu dituzte

Truke azoka, presoen aldeko brindisa, karaokea eta umeei zuzenduriko emanaldia izango dira

I. Terradillos Ibarra

Ibarra Gaztetxeak eta Subegi elkarteak elkarlanean hainbat ekitaldi antolatu dituzte egun hauetarako. Ekitaldiok Gaztetxe-



Truke azoka bihar arte egongo da zabalik, Gaztetxean. ASIERIMAZ

an nahiz Subegin izango dira, eta herritar guztiei zuzenduko dira.

Batetik, Gaztetxean, truke azoka izango da bihar arte. Antolatzailleek adierazi dutenez, norberak nahi duen materiala eman ahaliko du eta bertan dagoenarekin trukatu.

Bestetik, Urtezahar gauean, 01:00etan euskal presoen aldeko brindisa egingo dute, eta festak Gaztetxean jarraituko du, han 02:00etatik aurrera karaokea egingo baitute.

Azkenik, urtarrilaren 4an gazte txoei zuzenduriko emanaldiaz gozatu ahaliko da. Atarrabiatik etortitako Florentzio Galbino zirkoa izango da ikusgai Subegin, 17:00etatik aurrera, doan.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	11°
HOTZENA	10°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoetaldia: 687 410 022. anoetaldia@hitza.info.
Ibarraldia: 687 410 118. ibarraldia@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldia: 687 410 118. leitzaldia@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Gaur plaza Berrian 16:00etatik 18:00etara, artea kalera ateratzea helburu duen *From Latin, Arsekimena* izango da.
- **Tolosa.** Bonbereneak mus txapelketa antolatu du lehen aldiz. Gaur bilduko dira, 22:00etatik 01:00etara.
- **Tolosa.** Zerkausian dagoen Eguberrietako haur parkean gaur, 12:00etan ipuin kontalaria izango da, eta 19:00etan euskaroketa eta diskoteka.
- **Amezketeta.** Ohiko osoko bilkura gaur, 14:30ean. Besteak beste, alkatetzaren ebazpenen berri emango dute; euskal pre-soen eskubideen aldeko mozioa izango dute eztabaidagai; eta batzordeen informazioa emango dute.
- **Tolosa-Areso.** Asis sarearen oitizaldiak izango dira gaur, Tolosan eta Areson. Tolosan Klarisen komentuan bilduko dira, 19:30ean, eta Areson, Ama Birjinaren elizan, ordu berean.
- **Tolosa.** Atsedena aisialdi taldearen Inauterietako Astelenitako konpartsan parte hartu nahi dutenek 650 87 97 04 telefono zenbakira deitu behar dute. Lehen entsegu bihar

egingo dute, 16:00etan hasita, Santa Maria plazan.

TXOTXONGILOAK

- **Tolosa.** Topic zentroan *Txotxongilo paregabea izango naiz* izeneko tailerra gaur eta bihar, 10:00etatik 13:00etara. Tailerra 8 urtetik gorako gaztetxoei zuenduta dago.

MUSIKA

- **Villabona.** Oinkari dantza taldeak antolatuta Lain taldearen kontzertu akustikoa izango da gaur, 22:00etan, kiroldegiko tabernan. Sarrera doan izango da.
- **Tolosa.** Gaur Santa Klara komentuan Hodeiertzen eta elkarteko beste abesbatzetako kideen emanaldia 20:15ean.
- **Tolosa.** Pettiren emanaldia gaur, Orbela tabernan, 22:30ean.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** *Esna-bidean* eta *Baserriatik Zerkausira* erakusketak Aranburu jauregian.
- **Aldaba.** Intxaur auzo elkarteak auzoko argazki zaharrak bilduz dituen erakusketak prestatu du elkarteko liburategian.

Irudia Tolosa



TRASTE ZAHARREKIN AMETSAK ERAIKIZ

Hamaseigarren aldiz antolatu du Laskorain ikastolak Merkatu Txikia. Aurtengo leloa *Traste zahar, amets berri* da, eta urtarilaren 8ra bitarte egongo da zabalik kultur etxean. Jasotzen duten dirua Indiako Arunachal Pradesh estatuko Bordumsa he-

rrira bideratuko dute, batetik, eta Sahara askeko Miyik herrian martxan dagoen ikastetxera, bestetik. Merkatu Txikia goizez, 10:00etatik 13:00etara dago zabalik, eta arratsaldez, 17:00etatik 20:00etara irekitzen dute. R.CALVO

Agurak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurak

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.



**Tolosan erosteak
merezi du**

Tolosa&Co

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com